

4.DIRU-ITURRIAK

3 menu desberdin egingo ditugu eta hauen prezioak honako hauek dira:

- Ikasleentzako menuak 7€ balioko du.
- Langileentzako menuak 12€ balioko du.
- Alergia, begetariano edo jateko modu desberdinak dituzten pertsonentzako 13€ balioko du.



→ Funtsean, bi diru-sarrera mota daude:

- Ordainketa bakarreko diru-sarrerak
- **Ordainketa errepikariak, gure produktua erosten duten bakoitzean izango ditugu sarrerak.**

Gure diru-sarrerak ez dira finkoak izango, izan ere, egunean erostera etorriko diren bezero kantitatea aldakorra izan dezake. Gainera, inflazioa dela eta produktuen prezioa aldatzen ari da denbora guztian, beraz horren arabera ere gure sarrerak alda daitezke.

→ Diru-sarrerak sortzeko modu anitzak dauzka enpresa batek:

- **Aktiboen salmenta, gure diru sarrerak bezeroengandik datoze-lako**
- Erabileragatiko saria
- Harpidetzagatiko saria
- Mailegua, rentinga eta alokairua
- Lizenziak
- Broker edo komisio bidezko sariak
- Publizitatea

→ Prezioei dagokienez, honela sailkatzen dira:

- **Prezio finkoak, prezioak beti berdinak izango dira, menu bakoitzak prezio finkoa izango baitu.**
- Prezio dinamikoak

Negozioak aurre egin dezan, hasierako finantzaketan 1,5 milioi euro inguru gure zerbitzuan inbertitzea nahi dugu, gurelehen bost Ti-Ta lokalak irekitzeko. Diru hori jatetxeen muntaia, marketina, langileen prestakuntza eta funtzionamenduaren hasierako gastuak estaliko dituzte.